

FAMILIENTZAKO INFORMAZIO OROKORRA

Oharra: agiri honen edukia informazioa emateko besterik ez da; baldintzak behar den araudian argitaratutakoak dira.

[Urtarrilaren 22ko 6/2026 Ebazpenean](#) ezarritako prozedura aplikatuko zaie 2025-2026 ikasturtean ikastetxe batean matrikulaturik ez dauden hurrei, bai eta, eskolaturik egonda, Haur Hezkuntzako lehen zikloko beste ikastetxe batera aldatzea eskatzen dutenei ere.

Ikaspostua eskatzen ahal dute:

- 2024an, 2025ean eta 2026an (maiatzaren 11ra arte, egun hori barne) jaiotako haurren gurasoek edo legezko ordezkariak. Urtebetetik beherakoentzako instalaziorik ez duten ikastetxeetan, ikaspostua eskatzen ahalko da 2026ko irailaren 1ean jada urtebete duten haurrentzat bakar-bakarrik.
- **Era berean, eskaera aurkeztu den unean jaio ez diren haurrentzako** ere eskatzen ahal da ikaspostua, baldin eta haurra 2026ko **lehenbiziko seihilekoan jaiotzekoa bada**. Halakoetan, horren frogagiria aurkeztu behar da (mediku-txostena). Onarpen-prozesuan jarraitzeko, beharrezkoa izanen da haurra beranduenez maiatzaren 11n jaiotzea, eta jaiotza-ziurtagiria aurkeztea 2026ko maiatzaren 12ko 23:59ak baino lehen.
- Ikaspostuen eskabidea eta esleipena egingen dira ikaspostua eskuratu nahi duen haurraren jaiotza-dataren arabera:
 - 0 urte:** 2025eko irailaren 2tik 2026ko maiatzaren 11ra bitartean (biak barne) jaiotako haurrak.
 - 1 urte:** 2024ko irailaren 2tik 2025eko irailaren 1era bitartean (biak barne) jaiotako haurrak.
 - 2 urte:** 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko irailaren 1era arte (biak barne) jaiotako haurrak.

Haur bakoitzarentzat **eskabide bakarra** aurkeztuko da.

ESKABIDEAK

Aurkezteko epea: otsailaren 23tik martxoaren 6ra.

Familiek aurkeztuko dute, Educa plataformaren bidez edo aurrez aurre, lehen aukera gisa eskatutako ikastetxearen entitate titularrak zehaztutako lokalean. Azken kasu horretan, eskaerak bat etorri behar du nafarroa.eus atariko tramiteen katalogoko fitxan dagoen ereduarekin eta, hala badagokio, entitate titular bakoitzaren webgunean dagoenarekin.

DOKUMENTAZIOA

Aurkeztutako dokumentazio osoak indarrean egon beharko du 2026ko martxoaren 6an.

a) Nahitaezkoa:

- Gurasoen edo legezko ordezkarien NANaren, AIZaren, pasaportearen edo agiri baliokidearen fotokopia.
- Familia liburuaren fotokopia edo zuzenbidean baliozkoa den beste edozein bide, familia lotura frogatzeko balio duena.
- Eskaera jaio gabeko haur bati badagokio, 2026ko lehenbiziko seihilekoan jaiotzekoa den eguna egiaztatzen duen mediku-txostena Adopzio- edo harrera-prozesuan dauden haurren kasuan, haurra noiz jaio den egiaztatzen duen agiria behar da.

b) Onarpen-irizpideak egiaztatzeko eta baloratzeko dokumentazioa:

Onarpen-irizpideak egiaztatzeko eta baloratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa [urtarrilaren 22ko 6/2026 Ebazpenean](#) jasota dago.

Honako datu hauek kontsultatzen ahalko dira:

- Familia ugariaren titulua
- Familia gurasobakarraren titulua
- Ikaspostua eskuratu nahi duen haurraren desgaitasunaren ziurtagiria
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko 2024ko ekitaldiko aitorpena

Gainerako dokumentazioa, edo kontsulta baimenduta ez duten datuei dagokien dokumentazioa, **interesdunek aurkeztu beharko dute**.

c) Hezkuntza-premia bereziak baloratzeko egiaztagiria:

Balorazio hori justifikatzen duten txostenak.

Familiak apirilaren 22an ikusten ahalko dute eskabidearen behin-behineko egoera Educa atarian, eta apirilaren 23tik 29ra bitartean aurkeztu ahalko dituzte erreklamazioak.

EBAZPENAREN FASEAK

Eskabideak baloratzeko, lehen aukera gisa eskatutako ikastetxearen entitate titularren hautaketa-batzordeak [urtarrilaren 22ko 6/2026 Ebazpenean](#) agertzen den baremoa aplikatuko du, aurkeztutako dokumentazioa oinarri hartuta.

Lehentasunak ezartzeko irizpideak baloratu ondoren berdinketarik bada, lehentasun-irizpideak aplikatuko dira hurrenez hurren, martxoaren 6ko 16/2024 Foru Aginduaren 12.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, berdinketa hautsi arte. Hala ere, berdinketa hausten ez bada, **irizpide osagarri bat** erabiliko da, hots, **gurasoen lan egoera edo egoera akademikoa**.

Irizpide osagarria erabilita ere berdinketa mantentzen bada, Hezkuntza Departamentuak **zozketa publikoa** eginen du berdinketa hausteko, hezkuntza-etapa guztietarako.

ONARPENA

Onartuen behin-behineko zerrendak Educa atarian eta lehen aukera gisa eskatutako ikastetxean argitaratuko dira, maiatzaren 5ean.

Maiatzaren 6tik 12ra bitartean, biak barne, erreklamazioak, zuzenketak edo uko egiteak aurkezten ahalko dira.

Haur bat 2025-2026 ikasturtean matrikulatutako ikastetxea ez den beste batean behin betiko onartzen bada, horrek berekin dakar, **automatikoki**, jatorrizko ikastetxe horretan ikaspostua galtzea 2026-2027 ikasturterako.

Jatorrizko ikastetxean ikaspostua ez galtzeko onarpen-prozesuan jarraitu nahi ez badu, ikaspostu berriari uko egin beharko dio, Educa atariaren bidez, maiatzaren 6tik 12ra.

Onartuen behin betiko lehenengo zerrendak maiatzaren 15ean argitaratuko dira.

MATRIKULA

Matrikula modu presentzialean formalizatuko da maiatzaren 18tik 22ra, haurra onartu duen ikastetxearen entitate titularrak zehaztutako lekuan.

Dokumentazioa:

- Haurra inskribatuta dagoen Gizarte Segurantzako kartillaren edo txartelaren fotokopia.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2025eko aitortenaren fotokopia, amarena eta aitarena edo legezko ordezkariena. Aitorpena egiteko betebeharririk ez izanez gero, hori frogatzen duen dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko da, eta/edo bestelako errentak edo diru-sarrerak jasotzea justifikatzen duen dokumentazioa edo, azken buruan, 2025. urteari dagozkion errenten edo diru-sarreraren gaineko zinpeko aitorpena, egoera sozioekonomikoa akreditatzen duen txosten sozial bat eta/edo ikastetxearen titular den toki entitateak familiaren urte horretako diru-sarrerak zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak.
- Agiri hori, beranduenez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2025eko aitorpenaren kanpaina bukatzen den egunean aurkeztu beharko da.
- Ordainagiriak helbideratzeko banku-entitateko kontu-zenbakiaren fotokopia, titularra eta zenbakia agertzen dituenak.
- Kasua bada, dagokion kuota ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Kasua bada, beharrezkoa den osasun-informazioa, haurra behar den moduan zaintzeko.
- Kasua bada, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izandako jaiotzengatik familia-unitateko kideen kopuruan egondako aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa.
-

Matrikula ez bada ezarritako epean egiten, **eskuratutako ikaspostua galduko da** eta, haurra **itxarote-zerrendaren batean egonez gero, horrek ekarritako eskubideak ere galduko dira**.

Aukera hobetzea:

- Baldin eta haurrak ikaspostua lortzen badu eskabidean lehen aukera gisa adierazitako ikastetxea ez den beste batean, matrikula egiteko unean, **“aukera hobetzea”** hautatzen ahalko da. Une horretatik aurrera, itxarote-zerrendetan agertuko da. Aukera hobetzea hautatuz gero, horrek esan nahi du haurrak aukera izanen duela beste ikastetxe batean ikaspostua lortzeko, baldin eta ikastetxe horri lehentasun handiagoa eman bazion.
- Ez bada aukera hobetzeko prozedura hori baliatzen, haurra esleitu zaion ikastetxean matrikulatzearekin batera, eskatutako beste ikastetxeetako itxarote-zerrendetatik kanpo geratuko da.
- Aukera hobetzea 2026ko ekainaren 12ra arte aplikatuko da, egun hori barne.
- Hala ere, aukera hobetzeko prozeduraren bidez egiten den matrikula berri orotan, interesdunen esku egonen da etorkizunean aukera hobetzeko posibilitateei uko egitea edo aukera horiek atxikitzea.
- Aukera hobetzeko prozedura aplikatzearen ondorioz ikaspostu berri bat lortzen bada, interesdunak automatikoki galduko du aurretik esleitu zuen ikaspostua, eta matrikula berria egin beharko du horretarako adierazitako epeetan.
- Matrikula ez bada adierazitako epe horietan egiten, lortutako ikaspostua galduko da eta, haurra itxarote-zerrendaren batean egonez gero, horrek ekarritako eskubideak ere galduko dira.

TARIFAK

Jantokiko tarifak entitate titular bakoitzak horretarako zehazten duen araudiaren arabera aplikatuko dira.

IKASLEAK ONARTZEKO BAREMOA

Aplikatu beharreko baremoa [urtarrilaren 22ko 6/2026 Ebazpenean](#) ezarritakoa da.

ONARPEN-PROZEDURAREN EGUTEGIA

Zozketa publikoa Hezkuntza Departamentuan (bakarrik erabiliko da izan daitezkeen berdinketak ebazteko)	Otsailaren 13a
Eskabideak aurkezteko epea	Otsailaren 23tik martxoaren 6ra
Eskabideen behin-behineko egoera (ikusgai)	Apirilaren 22a
Behin-behineko egoeraren kontrako erreklamazioak eta/edo zuzenketak	Apirilaren 23tik 29ra
Behin-behineko zerrendak argitaratzea	Maiatzaren 5a
Erreklamazioak	Maiatzaren 6tik 12ra
Jaiotza-ziurtagiria aurkezteko epearen bukaera (2026ko martxoaren 7tik maiatzaren 11ra bitartean jaiotakoak)	Maiatzaren 12a
Behin betiko 1. zerrenda argitaratzea	Maiatzaren 15a
Lehenbiziko matrikula-epea	Maiatzaren 18tik 22ra
Behin betiko 2. zerrenda argitaratzea	Maiatzaren 26a
Matrikula egiteko bigarren epea	Maiatzaren 27a eta 28a
Behin betiko 3. zerrenda argitaratzea	Maiatzaren 29a
Matrikula egiteko hirugarren epea	Ekainaren 1a eta 2a
Aukera hobetzeko epearen bukaera	Ekainaren 12a
Itxarote-zerrenden indarraldiaren bukaera	2027ko otsailaren 12a